

NOTAZIO MELODIKOA

BIGARREN UNITATEA

Hona hemen notazio latindarraren eta notazio anglosaxoiaren arteko baliokidetasuna:

C - D - E - F - G - A - B
DO - RE - MI - FA - SOL - LA - SI

Musika idazteko pentagrama erabiltzen da. Pentagrama bost lerrotako eta lau espaziotako grafiko bat da:




Pentagramamako bost lerroetatik gorago edo beherago aurkitzen diren notak idazteko, lerro gehigarriak erabiltzen ditugu :



Normalean, nota baxuak Fa klabea idazten dira 4. lerroan. Klabeek musika-noten altuera aldatzen dute, horixe da beren funtzioa.



Hau da Sol klabeko noten kokapena teklatu batean :




BITARTEAK I

Bitarte bat bi noten arteko distantzia da. Bi neurketa-unitate ditugu:

Tonuerdia bi teklen arteko distantziarik txikiena da. Tonuerdia da Mendebaldeko musikan erabiltzen den soinu-tarterik txikiena.

Tonua da ondoz ondoko bi tonuerdiren batuketa teklatu batean.

Tonua egon daiteke bi tekla beltzen artean, bi zuriren artean edo tekla zurien eta beltzen artean.



Ohartu zaituz tonuerdiak beti daudela Mi-Fa eta Si-Do noten artean.

ALTERAZIOAK: DIESEAK, BEMOLAK ETA BEKOADROAK

Diese bat (*sostenitu* bat) jartzen badugu nota baten aurrean, nota horren altuera aldatzen dugu, tonuerdi bat gorantz igoz.

Disea Bekoadroa Bemola

♮ ♭


Tonalitatea: Re diesea Re bekoadroa Re bemola
bi bemol
(Si bemol maior)

Bemol bat jarriz gero, tonuerdi batez jaisten dugu notaren altuera.

Bekoadro bat jartzen badugu, hurrengo konpasera arte ezeztatzen dugu diese edo bemolaren efektua.

Pentagrama bakoitzaren hasieran eta klabearen eskuinean dauden dieseek edo bemolek *armadura* eratzen dute. Armadurak esaten digu zein tonalitatetan edo eskalatan gauden. Diese eta bemol horiek partituran agertzen diren izen bereko nota guztiei eragiten diete. Bai diesea (*sostenitua*) bai bemola armaduran egonez gero, ez dugu haien zeinua nota bakoitzaren aurrean idatzi behar.

Teklatuak afinatuta daude tekla bakoitzaren eta hurrengoaren artean tonuerdi bat soilik egon dadin:



Nota *enarmonikoak*: soinu berberari dagokie, baina beste modu batean izendatzen ditugu. Adibidez, Do# eta Reb.

FORMA MUSIKALA

ZORTZIGARREN UNITATEA

Musikak daukan molde edo barne-egiturari forma musikala deitzen diogu.

Musika-
konposizioaren
oinarrizko
printzipioak



Errepikapena

Kontrastea



Musikak errepikapena behar du ulertua eta gogoratua izateko, baina gehiegizko errepikapenak asperdura edo nekea sor dezake. Beraz, musikak gauza diferenteak konbinatu behar ditu aldi berean, edo bestela, entzunda dagoena alda dezaten elementuak sartu. Kontrastea sortu behar du.

Edertasuna bi elementu horien arteko oreka aurkitzean datza.

Normalean, forma musikala konposizio bateko melodia desberdinen eta beren kateatzearen inguruan antolatzen da.

Forma musikala aztertzeko, letra bana ematen diogu motibo melodiko bakoitzari. Motibo edo gai bera berriro entzuten bada, berari dagokion letra errepikatuko dugu, eta zerbait berria entzunez gero, letra berri batekin izendatuko dugu.

1. melodia → A
2. melodia → B
Etab.

Jarraian ikusiko dituzu mendebaldar musikaren eskema edo molde sinpleenak.

Aurrerago aurkituko duzu haietariko bakoitzaren azalpena.

FORMA SINPLEAK

Estrofa-forma edo balada

Errepikatzen den esaldi musikal bakarra dauka.



Forma bitarra

Errepikatzen diren bi atal dauzka.




12 konpaseko bluesa

Melodia bera bi aldiz errepikatzen da (*deia*) bariazio arin batzuekin, eta jarraian beste melodia bat dator (*erantzuna*).



Abesti egitura

Funtsean, estrofaren musika eta leloarena (errepika) txandakatzen doaz.



Hirutarra

Hiru atal ditu, eta azkena lehenaren errepikapena da normalean.



Rondoa

Musika-gai bat errepikatzen doa, baina beti txandakatzen da gai edo motibo berriekin.



Bariazioak dituen gaia

Konpositoreak musika-gaia aurkeztu ondoren, hainbat eratan errepikatzen du.



ESTROFA-FORMA

Estrofa-forman estrofa guztiek daukate motibo musikal bera. Gai edo motibo hori behin eta berriro errepikatzen da, ia aldaketarik gabe.



Estrofa-forma musika klasikoan, folklorean, bluesean eta pop musikan erabiltzen da.

Estrofa bakoitzeko musika beti da berdina, baina testua etengabe doa aldatzen.

Ereserkietan eta erromantzeetan estrofa-forma erabiltzen da.

FORMA BITARRA

Bi musika-gai dauzka eta haietariko bakoitza bitan errepikatzen da.



Aro barrokoan erabiltzen zen, hainbat dantzarako musika konposatzeko: *bourrée* direlakoak, minuetak, *gavotta* dantzak, zarabandak eta gigak.

Bi musika-gaiek soinu diferentea eman behar dute (kontrastea).

Askotan kontrastea tonalitate (eskala) erlatiboetara modulatzuz egiten da (eskala aldatuz):

- Modu minorreko piezak tonalitate erlatibo maiorrera igaroz modulatzuz dira (adibidez, La minorretik Do Maiorrera)
- eta modu maiorreko piezak dominantearen tonalitatara igaroz modulatzuz dira (adibidez, Do Maiorretik Sol Maiorrera)

12 KONPASEKO BLUESAREN EGITURA

DEIA ETA ERANTZUNA

Oso forma musikal sinple eta zaharra dugu hau: *deia eta erantzuna*. Forma hau bi musika-talderen artean ematen da, edo bestela, musika-lider baten eta bere taldearen artean. Talde batek (edo liderrak) esaldi labur bat jotzen edo abesten du (*deia*) eta taldeak *erantzuna* ematen dio.

12 konpaseko bluesean *dei-* eta *erantzun-*patroia apur bat aldatzen da, A gaineko bariazio arin bat gehituz.

Eskema honako hau izango litzateke: A-A'-B



HARI-INSTRUMENTUAK ETA BEREN TALDEKATZEAK

BEDERATZIGARREN UNITATEA

Kultura bakoitzak bere hari-instrumentuak ditu.
Hari-instrumentuetan hari tenkatuen bibrazioetatik sortzen da soinua.

Mendebaldar kulturako hari-instrumentuak honela sailkatzen dira:

**Hari pultsatuko
instrumentuak**

Hariak hatzekin pultsatzen dira, edo bestela, plektro batekin.



**Hari igurtzitako
instrumentuak**

Nagusiki arkuarekin jotzen dira.



**Hari kolpekatuko
instrumentuak**

Hariak kaxa barruko mailutxo batzuekin kolpekatzen dira.



HARI PULTSATUTAKO INSTRUMENTUAK

GITARRAK



**GORPUTZ
BARNEHUTSA**

Gitarra klasikoa edo espainolak nylonezko hariak eta gider lodia ditu.



Gitarra akustikoa metalezko hariak ditu eta anplifikadorearekin nahiz anplifikatorerik gabe jo daiteke. Giderra meheagoa da eta sendotuta dago, metalezko hariak eragiten duten tentsioari eusteko.



**GORPUTZ
SENDOA**


Gitarra elektrikoak ere sei hari ditu. Soinua egiteko anplifikadore bat eta bozgorailu bat behar ditu. Gitarrista askok *combo* bat erabiltzen dute: anplifikadorea eta bozgorailua aparailu berean daude.

ANPLIFIKADOREA



Baxu elektrikoak metalezko lau hari lodi ditu. Oso soinu baxuak ateratzen ditu. Honek ere anplifikatze elektrikoak behar du.

GITARRA BATEN ATALAK



Gitarrek sei hari dituzte, eta nota hauetan afinatzen dira: MI(baxua)-LA-RE SOL-SI-MI(altua).

Jotzen duzunean, MI baxua zure burutik hurbilen dagoena da.

Gitarra akustikoak eta elektrikoak hatzekin jo daitezke, edo bestela, plektro edo zi batekin (plastikozko xafla txiki bat da).

Punteatzea hariak banan-banan jotzea da, eta zarrastatzea eskua harien gainetik mugitzea, era ondulatuan, soinua hari guztiek aldi berean atera dezaten (horrela jotzen dira akordeak). Musika tradizionalen eta pop musikako gitarra-joleek akonpainamenduak egiten dituzte gehienbat, eta horregatik punteatu baino gehiago zarrastatu egiten dute.

Honako hauek gitarraren antzeko instrumentu batzuk dira. Errenazimenduko edo Barrokoko musika-kontzertu batera joango bazina (XV. eta XVIII. mendeen arteko aroa), haiek entzuteko aukera izango zenuke. Oso soinu delikatuak izaten dituzte.

LAUTE



"Musikariak". Caravaggio.1597

BIHUELA



*"Emakume bat bihuela jotzen".
Simon Vouet. 1618*

TIORBA



*"Emakume bat tiorba jotzen, alboan
gizonezko bat duela".
Gerard ter Borch. 1658*

HARPA

Harpa atzamarrekin jotzen da beti.



Harpa gehienek berrogeita zazpi hari dituzte.

Kontzerturako harpa bateko hariak era ordenatuan pultsatzea piano bateko tekla zuriak jotzea bezalakoa da.

Zazpi pedal dituzte.

Pedalak zapaltzean notak aldatzen dira, bemolak eta sostenituak edo dieseak sortuz.

Hariak banan-banan edo haietariko batzuk aldi berean jo daitezke (akordeak egiteko).

HARI IGURTZITAKO INSTRUMENTUAK

Instrumentu-talde hau orkestraren bihotza da.

Biolina



Biola



Biolontxelo



Kontrabaxua

Instrumentua zenbat eta handiagoa izan orduan eta baxuagoa da bere soinua.

Igurtziz eta pultsatuz jo daitezke:

Igurtziak: arkuak igurzten ditu hariak. Teknika honi *arku-teknika* deitzen zaio. Arkuak zaldi-zurdekin egiten da.

Pultsatuak: hatz-mamiekin jotzen dira. Hitz teknikoa *pizzicato* da.